TRABAJO AUTÓNOMO DE NAVARRA

NAFARROAKO LAN AUTONOMOA

2017-2020 LAN AUTONOMOAREN I. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Aurkibidea

1. SARRERA 3

2. ILDOEN AZTERKETA ETA EBOLUZIOA 6

2.1. Langile autonomoen gaitasunak sustatzea 6
2.2. Hobekuntza administrazio zerbitzuak ematean 11
2.3. Ekintzailetza sustatzea 17
2.4. Lan autonomoa finkatzea 19
2.5. Emakume ekintzaile eta autonomoen gaineko ekintza plana 24
2.6. Arriskuen prebentzioa eta lan osasuna 26
2.7. Gizarte babesa eta porrotaren ondoko babesa 28
2.8. Kolektiboaren posizionamenduaren hobekuntza 30
2.9. Planetik kanpoko beste ekintza batzuk 32

3. AMAIERAKO GOGOETAK 34

ERANSKINAK: ILDOEN-JARDUEREN-EKINTZEN EBALUAZIO TAULA 36

1. SARRERA

2017ko azaroaren 15ean Nafarroako Lan Autonomoaren I. Plana (2017) onartu zen Nafarroako Gobernuan. Plana onetsi baino lehen, zenbait ekintza eta ekimen politiko izan ziren. Adibidez, Nafarroako Lan Autonomoaren Kontseilua sortzeko urtarrilaren 30eko 9/2013 Foru Dekretua edo Nafarroan ekintzaileei eta lan autonomoari laguntza emateko martxoaren 12ko 12/2013 Foru Legea. Ekimen horien guztien helburua zen Nafarroa osorako aberastasuna eta enplegua sortzeko gai den garapen ekonomikorako eredu honek duen gero eta garrantzia ikusgarriagoa nabarmentzea.

Plan hau oinarritzat hartuta, hainbat jarduera eta ekintza bideratu dira autoenplegua garatu eta hobetzeko eta enpresak sortzeko, ekintzailetza autonomotik abiatuta.

Planak zortzi ildo estrategiko zituen, eta ildo horien barruan kokatu ziren ekintzak eta jarduerak:

1. Langile autonomoen gaitasunak sustatzea.
2. Hobekuntza administrazio zerbitzuak ematean.
3. Ekintzailetza sustatzea.
4. Lan autonomoa finkatzea.
5. Emakume ekintzaile eta autonomoen gaineko ekintza plana.
6. Arriskuen prebentzioa eta lan osasuna.
7. Gizarte babesa eta porrotaren ondoko babesa.
8. Kolektiboaren posizionamenduaren hobekuntza.

Zalantzarik gabe, ekintzen jarraipena egin aurretik, COVID-19aren pandemiak eragindako krisi ekonomikoak ekonomian, orokorrean, eta lan autonomoan, zehazki, izan duen inpaktua baloratu behar da prozesu honen barruan. Jatorri ekonomikorik izan ez arren, krisi honek sakonean eraginen die ekoizpen-sareari eta sektore guztien itxaropenei.

Eta, gainera, oraindik ere ez da gainditu ziurgabetasuna, zeinak lotura estua baitu txertoen eraginkortasunarekin eta ekonomiak estimulu ekonomikoen eta Next

Generation ekimenaren barruko Europako proposamenen aurrean izanen dituen erantzunekin.

Azaletik aztertuta, ondoriozta dezakegu planaren alderdi gehienak gauzatu direla, baina hurrengo planean aztertu beharko diren hutsuneak daudela.

Edonola ere, zenbait inguruabar eman dira, egiturazkoak batzuk, eta koiunturaren ingurukoak beste batzuk, ekintza batzuen garapenean eragin nabarmena izan dutenak. Azalpen gisa, uste dugu hauek nabarmendu behar direla:

- Instantzia administratibo batek baino gehiagok parte hartzeak izugarri zailtzen du ekintzetako batzuen koherentzia, instantzia bakoitzaren lehentasun, erritmo eta eredu administratiboetara egokitu behar baita. Epeen arloko deskoordinazioa eta esku hartzeko moduak kontuan hartu behar dira koherentzia handia behar duten halako proposamenak bideratzeko.
- Autonomoen posizioen aniztasunak, pertsona fisikoen eta sozietateetakoen arteko banaketa klasikotik baino harago, mendeko autonomoak edo autonomo faltsuak izateak edo duela gutxi riderrak edo plataformako ekonomiak (Gig ekonomia) sartu izanak desitxuratu egiten dute kolektibo honen inguruko ikuspegi homogeneoa, eta kontzeptu irekiagoak behar dira, baita diseinatutako ekintzen hartzaile izanen diren taldeen definizio argia ere.
- Lan merkatuan autonomo berriak sartzeko arrazoiak ere era askotakoak dira: beren borondatearen kontra sartu dira, soldatapeko merkatuan jarraitzeko ezintasunaren ondorioz, beren laneko biografia propioa eraikitzera behartuta dauden pertsonetatik hasita, bere jardueraren autonomiaren aldeko apustu irmoa egiten duen ekintzaileraino. Tartean, grisen eskala anitza dago.
- Eta, jada aipatu badugu ere, COVID-19aren pandemiak eragindako osasun-krisiak inpaktu oso nabarmena izan du bai ekoizpen prozesuetan, bai planean jasotako politiketako batzuk ezartzeko aukera errealetan.
- Hazkundearen moteltzea –edo izoztea ere–, jada 2019an hautematen hasi zena.

Horrek guztiak eraldaketak eragin ditu plangintzan eta plana garatzeko benetako aukeretan; beraz, inguruabar hori azpimarratu egin behar da lehen aldiz eta testuinguru jakin batean sortutako planek berezko dituzten zailtasun batzuei buruzko balorazio antzuak saihesteko.

Aipatutako zailtasunak kontuan hartuta, ildo estrategikoen araberako analisi bat eginen dugu, lortutako helburuak ezagutzeko eta ebaluatzeko tresnak izateko.

2. ILDOEN AZTERKETA ETA EBOLUZIOA

Nafarroako Lan Autonomoaren 2017-2020 Plana honela osatuta zegoen: **8 ildo estrategiko**, **20 ekintza**, eta, hauen barruan, **57 jarduketa** zehatz.

2.1 Langile autonomoen gaitasunak sustatzea

Ildo honen barruan 3 ekintza eta 7 jarduera daude, autonomoen gaitasunak hobetzeko, lan merkatuan duten posizionamendua hobetu dezaten.

Autonomoen kopurua eta prestakuntza ekintzetan parte hartzen dutenen kopurua areagotzeko helburuak une bakoitzeko egoera sozioekonomikoaren eraginpean egon dira.

Ezarritako helburuak betetzeko, ahalegin handia egin da informazioa emateko eta autonomoek eta herritar guztiek erabiltzeko moduko tresnak sortzeko.

Hala, Lan Zerbitzuak Nafarroako Lan Autonomorako Ekintzen Gisa sortu du. Haren helburua da, autonomoei haien negoziorako aukerak sendotzeko eta hobetzeko laguntzak emateko, Nafarroako Gobernuak prestatutako ekintza guztien informazio orokorra ematea.

Orrietara egindako bisita kopurua	Ikustaldi bakarreko orrien kopurua	Orrian egindako batez besteko denbora	Erreboteen ehunekoa	Irteeren ehunekoa
792	477	31,85	% 52,00	% 9,09

Horrez gainera, Nafarroan dauden **ekintzailetzarako eta autoenplegurako sareak** indartu dira. Hauek dira datuak:

		Esleitutako zenbatekoa	Arreta jaso duten pertsona kop.	Sortutako enpresen kopurua	Sortutako enplegua

2017	**Aholkularitza NL-NEZ Iturrondo**	49.413,38 €	466		
	CEIN ekintzailetza	200.000,00 €	444		
	Toki garapeneko agenteentzako dirulaguntzak	395.380,44 €	808	240	295
	Guztira	**644.793,82 €**	**1.718**	**240**	**295**
2018	**Aholkularitza NL-NEZ Iturrondo**	25.634,55	360	-	-
	CEIN ekintzailetza	250.000,00 €	515	125	170
	Toki garapeneko agenteentzako dirulaguntzak	395.970,67 €	945	261	297
	Guztira	**671.605,22 €**	**1.820**	**386**	**467**
2019	**Aholkularitza NL-NEZ Iturrondo**	35.949,77 €	445		
	CEIN ekintzailetza	231.264,49 €	537	116	125
	Toki garapeneko agenteentzako dirulaguntzak	396.200,00 €	962	289	324
	Guztira	**663.414,49 €**	**1.944**	**405**	**449**
2020	**Aholkularitza NL-NEZ Iturrondo**	24.277,74 €	288		
	CEIN ekintzailetza	183.388,47 €	358	43	53
	Toki garapeneko agenteentzako dirulaguntzak	396.200,00 €	621	175	188
	Guztira	**603.866,21 €**	**1.267**	**218**	**241**
	GUZTIRA	**2.583.679,51 €**	**6.749**	**1.249**	**1.452**

Datu horiek erakusten digutenez, autoenplegurako prozesuetan interesatutako pertsona asko daude (6.749), eta 1.249 enpresa eta 1.452 enplegu sortu dira.

Baina, prestakuntzari dagokionez, ez dira lortu ezarritako helburuak.

Adierazleak	**2017**	**2018**	**2019**	**2020**
Prestakuntzan parte hartu duten autonomoen kop.	430	440	450	
Exekuzio datuak	274	116	135	90

Ez dira lortu helburuak ez lortu beharreko datuei dagokienez, ez autonomoak prestakuntza-prozesuetan sartzeko estrategia egokienari dagokionez. Baina badago, gutxienez, Autonomoentzako Prestakuntza Plana, NEZen landunentzako

prestakuntzaren ildotik, nahiz eta, plana kudeatzeko zailtasunen (ordutegiak, egiteko aukerak, prestakuntzaren arloko beharrizan bereziak, etab.) ondorioz, eskaintza eskasa da. Hala ere, badaude martxan jartzeko behar besteko eskaerarik ez duten zenbait eskaintza.

Urratsak eman behar dira autonomoen erakundeen inplikazioa lortzeko lan merkatuaren sektore honentzat plan bereziak diseinatu eta martxan jartzeko prozesuetan. Elkarteen, administrazioaren eta prestakuntza entitateen konpromiso partekatuaren eta elkarlanaren bidez baino ezin izanen dira bideratu sektorean behar besteko garrantzia eta eragina izanen duten planak.

Beste alde batetik, zeharkako prestakuntzak daude (IKTak, adibidez), non autonomoek parte hartu ahal baitute gainerako langileek bezala. Zehazki, eta ezagutzaren eremu honetan, krisiak azkartu eta malgutu egin ditu digitalizazioari buruzko prestakuntza-prozesuak.

Izan ere, autonomo gehiago egon dira Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren prestakuntza planetan autonomoentzako plan berezien bidez egin den prestakuntzan baino.

Urtea	Ekintza kopurua	Parte-hartzaileak	Aurrekontua
2017	21	277	79.500 €
2018	25	335	91.450 €
2020	45	714	165.000 €

Aldi berean, ekintzailetza sustatzeko ekintzak egin dira, nolabaiteko arrakastarekin:

- «Conecta empleo» anezkak: 6 hilabeteko programa; 32 erabiltzaile
- Telefónicaren anezka: 4 hilabeteko programa; 20 erabiltzaile
- Giltza programa: Doneztebeko, Iruñeko eta Altsasuko gazteentzako programa, Learning by Doing metodologian oinarritutakoa. 26 erabiltzailek parte hartu dute.

- Kimua programa: Lanbide Heziketako Plan Estrategikoaren barruko programa. Proiektuetan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntzan oinarrituta dago.

Programa guztiak batuta, 1.936 autonomok edo autonomo gisa ezartzeko prozesuan daudenek parte hartu dute 2017tik 2020ra bitartean egindako prestakuntza-prozesuetan.

Horrez gainera, CEINek egindako ekintzetan parte hartu dutenak gehitu behar dira: 4.662 pertsona

CEIN AUTONOMOAK	2017	2018	2019	2020	GUZTIRA
Tailerrak eta mahaiak	234	604	44	291	**1.173**
Networking jarduerak	635	510	528	134	**1.807**
Aholkularitza indibidualak	231	267	196	539	**1.233**
Taldeko aholkularitzak	119	119	119	92	**449**
	1.219	**1.500**	**887**	**1056**	**4.662**

CEIN anezkari lotutako ekintzen gauzatzeari eta enpresak sortzeko izan duten emaitzari dagokienez, balorazio positiboa egin dezakegu ekonomiaren sektore honen dinamizazioan lortutako eraginaren inguruan

- 2017: guztira, 516 proiektu, eta haietatik 91 enpresa sortu dira.
- 2018: guztira, 515 proiektu, eta haietatik 125 enpresa sortu dira.
- 2019: guztira, 537 proiektu, eta haietatik 116 enpresa sortu dira.
- 2020: guztira, 410 proiektu, eta haietatik 44 enpresa sortu dira.

Halaber, nabarmentzekoa da anezkak 2017tik 2020ra bitartean egin dituen jardunaldietan 5.119 partaide izan direla, bai autonomoak, bai ekintzaileak (norberaren konturako langileak, besteren konturakoak edo langabetuak).

Ondorioak, labur:

Ildo estrategiko honi dagokionez, hau ondoriozta dezakegu:

- Prestakuntzarako dauden aukera anitzei esker (autonomoentzako plan bereziak, landunentzako prestakuntza, autonomoentzako plan sektorialak, autonomoen eta ekintzaileen gaitasunak hobetzeko prozesuak, etab.), aukera zabala dago gaitasunak hobetzeko. Hala ere, azpimarratu behar da ezinbestekoa dela autonomoen elkarteen inplikazioa eta prestakuntza entitateekin koordinatzea, kolektibo horri prestakuntza jasotzea errazteko.
- Administrazioen arteko koordinazioa hobetu behar da, ekintzen ezarpenaren eta haien efikaziaren jarraipen egokia egiteko.
- Nabarmentzekoa da enplegurako formula berezi honekiko interesa duten pertsonen kopuru handia. Zalantza eragiten du ez jakiteak lan malguago eta pertsonen beharrizanetara egokitutako baten aldeko borondatezko apustua den ala, inoren konturako enplegua lortzeko zailtasunengatik edo outsourcing prozesuen bidezko edo <elkarlaneko> ekonomiaren plataformek berezko dituzten prozesuen bidezko ekoizpen ereduaren eskakizunengatik, egoerak eragindako aukera bat den. Egiazki, borondatea ardatz estrategikoa da negozioei eta haiek eragindako jarduerei eusteko.
- Aurrekoaren ildotik, harrigarria da negozio berrien hazkunde iraunkorra, nahiz eta lan autonomoan ari diren pertsonen kopurua ez aldatu. Datu horrek adierazten du, batetik, negozio ugari sortzen direla, baina, bestetik, beste asko ixten direla. Hala erakusten dute urteko datuek:

5. taula. Pertsona fisikoen/sozietateen eboluzioa

		abe-16	abe-17	abe-18	abe-19	abe-20
GSn norberaren kontura afiliatutakoak (LAAB)	Pertsona fisikoak	27.439	26.826	26.653	26.582	26.510
	Sozietateak	20.271	20.805	21.035	20.514	20.640
	Guztira	47.710	47.631	47.688	47.096	47.150
Pertsona fisikoen/sozietateen %	Pertsona fisikoak	57,5	56,3	55,9	56,4	56,2
	Sozietateak	42,5	43,7	44,1	43,6	43,8

Iturria: Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa. Langile autonomoak, pertsona fisikoak, Gizarte Segurantzan alta emanda daudenak. Profilen txostena. Nafarroa

Horrenbestez, ondorioa da doitu egin behar direla jarduera berriak sortzeko orientazioa eta laguntza emateko prozesuak, eta helburua izan behar da jarduera horiei oinarri sendoa ematea.

2.2 Hobekuntza administrazio zerbitzuak ematean

Kasu honetan, 7 ekintza eta 12 jarduera prestatu ziren. Gehienen helburua zen LAABen alta emandako langileen artean enpresa-ekimen berriak sortzeko dauden eragozpen administratiboak eta oztopoak detektatzea eta, ahal den neurrian, kentzea. Horretarako, leihatila digital bakarra martxan jartzea planteatzen zen, baita Komunitateko leku ezberdinetara zabaltzea ere.

Zeregin horri Politika Ekonomikoaren Zerbitzuaren lan batetik ekin zitzaion, Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin eta beste administrazio batzuekin elkarlanean.

2017an EAG gunean sortu zen, Lehiakortasunaren Zerbitzuaren menpean, eta 4 urteko epean 641 ekimen eta 130 talde hartu dira.

Urtea	Ekimenak	Emakumeak	Gizonak	Banakoak	Taldeak
2017	124	51	73	79	45
2018	115	54	61	81	34
2019	213	120	93	179	34
2020*	189	84	105	172	17
GUZTIRA	**641**	**309**	**332**	**511**	**130**

**2020ko azaroaren 20ra arte*

Hala ere, ez da lortu leihatila bakarra behin betiko ezartzea. 2018. urtearen amaieratik, EAG gunean, CIRCE plataformaren bidez, ekintzaileek leku beretik egiten ahal dituzte jarduera ekonomiko bat martxan jartzeko zenbait erakunderen aurrean egin beharreko izapideak, baina **Nafarroan egiten den izapide bakarra da** sozietate batean ez dauden autonomoei **LAABen Gizarte Segurantzako alta ematearena**.

Bestalde, sektorearen baldintzak eta gardentasuna hobetzeko, zenbait laguntza ildo garatu dira jarduera hasten laguntzeko edo aholkularitza emateko.

NEZ: 2.000 euro arteko laguntzak alta berrietarako

Urtea	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA	Aurrekontua
2017	473	348	821	1.932.300 €
2018	537	390	927	2.175.800 €
2019	458	361	819	1.931.100 €
2020	369	333	702	1.640.800 €
GUZTIRA	**1.837**	**1.432**	**3.269**	**5.942.000 €**

Aldi berean, **nekazari gazteak instalatzeko** laguntzak mantendu dira:

URTEA	Espediente kop.	Esleitutako
2016	67	2.497.492,00
2017	93	3.466.668,00
2018	91	3.392.116,00
2019	94	3.503.944,00
2020	68	2.534.768,00
GUZTIRA	**413**	**15.394.988 €**

Halaber, martxan jarri dira **enpresak ezartzeko laguntzak:** gehienez ere 2.700 € hasierako gastuetarako. Hauek izan dira emaitzak:

Urtea	Autonomo kopurua	Kopurua
2017	0	0
2018	26	20.639,52 €
2019	61	75.635,97 €
2020	48	53.203,29 €

EJZrako eta kontrataziorako **pizgarri fiskalen politikei** dagokienez, ezin izan dira garatu aurrez ikusita zegoen bezala. Hala ere, lehenengo kasuan, indarrean jarri da milioi bat eurotik beherako fakturazioetan EJZren ordainketa kendu duen araua. 2021eko urtarrilaren 1etik dago indarrean. Eta, kontratazioaren arloan, ezarritako onura fiskalak eman ez badira ere, planean jasotako kontratazio mailari eutsi zaio:

Autonomoek egindako kontratuen kopurua

	2017	2018	2019	2020
Helburuak	9.500	10.000	10.500	
Eginak	10.679	11.086	11.086	10.735

Horrez gainera, jarduera egiteko lokalak eskuratzeko aukera errazteko ahalegina egin da, batez ere negozioak ezartzeko zailtasun gehiago dituzten eskualdeetan. Orain arte, 10 udalerrik 15 lokal jarri dituzte, eta NASUVINSAk beste 10 lokal eskaini ditu.

Aurreko laguntzekin batera, esku-hartze bereziago batzuk egin dira ere:

Mikrokredituetarako bermeen lerroa

Urteak	Helburuak	Aurrekontua	Eragiketa	Gastua
2017	15	260.000 €	0	0
2018	17	260.000 €	5	187.000 €
2019	20	280.000€	11	286.700 €
2020			4	146.654 €

Txikizkako merkatari ekintzailearentzako laguntzen deialdia

Lehiakortasuna hobetzeko deialdiak:

2018	17 proiektu	89.693 €
2019	5 proiektu	20.968 €
2020	3 proiektu	14.200 €

Eta, azkenik, autonomoei informazioa emateko sistemak hobetzeko ekintzak egin dira:

- CEINekin elkarlanean, zenbait informazio emateko tresna digitalak diseinatu dira

Iragarki-	2017	2018	2019	2020
Lokalen		367	259	209
Errelebo		4.670	4.462	3.720
Tramiteak	5.875	5.914	5.629	9.793
GUZTIRA	**5.875**	**10.951**	**10.350**	**13.652**

Badirudi 2020an tramiteen kopuruak gora egin badu, urte horretako zailtasunen eta egoera berezien ondorioz izan dela

- Autonomoaren gida bat sortu da, eta bisita hauek izan ditu 2020an (urtarrilaren 1etik azaroaren 5era bitartean)

Orrietara egindako	Ikustaldi bakarreko orrien	Orrian egindako batez besteko	Erreboteen ehunekoa	Irteeren ehunekoa
792	477	31,85	% 52,00	% 9,09

Ondorioak, labur:

Ildo honen hasieran esan dugun bezala, helburu nagusia zen informazio-zerbitzuak hobetzea. Hala ere, jardueren zabalpenari dagokionez, gehienak lotura gehiago dute laguntza ekonomikoekin ildoaren helburu orokorrarekin baino.

- Zuzeneko laguntzen kasuan, izapideak errazagoak direnez eta izaera finalista dutenez, gehiago eskatzen dira beste tresna batzuk baino, adibidez, bermeak baino, oro har konplexuagoak baitira eta arrisku handiagoa dutelako mikro ETE hauentzat.

- Informaziorako sareen eta plataformen erabilera egokia izan dela esan daiteke, baikorregiak diren aurreikuspenak alde batera utzita. Edonola ere, informazio-

tresnak hobeki ebaluatu daitezke haien erabilgarritasunari dagokionez, erabilera kuantitatiboari dagokionez baino.

- Orokorrean, ildo estrategiko honen inguruko funtsezko sentsazioa da beharrezkoa dela leihatila bakarra ezartzeko urratsak ematea, hobekuntza digitalak aprobetxatuta, izapideak errazteko.

2.3 Ekintzailetza sustatzea

Kultura ekintzailea prestakuntza prozesuen eta orientazioaren bidez sustatu eta bultzatzeko, ekintza bat eta 3 jarduera egin dira. Asmoa da ekintzailetza-ekimenak antolatzea hezkuntzan, lanbide heziketan eta unibertsitatean, kultura ekintzailea sustatzeko neurriak zabalduta.

Horretarako, dibulgazio saioak egin dira langabetuentzako prestakuntzan parte hartu dutenekin, bai Iturrondo zentroan, bai CENIFER zentroan. Ekintza hau NEZek egin du, CEINekin eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin (CEN) elkarlanean.

Hezkuntza Departamenduak bi ildo landu ditu:

1. Lan autonomoari eta negozioen erreleborako poltsari buruzko prestakuntza jardunaldia, LPOko irakasleentzat (2019). 23 partaide. Helburua zen aukera hauen berri ematen LHko ikasleei.
2. Nafarroako Lan Autonomoaren II. Feriari buruzko informazioa eman zaie ikasleei eta irakasleei. Nafarroako Gobernuko Lan Zerbitzuak sustatzen du feria hori, profesional autonomoen topagune gisa, haien produktuak eta zerbitzuak aurkez ditzaten.

Asmoa zen 2020an LHko irakasleei prestakuntza ematen jarraitzea negozioen erreleborako poltsari buruz, baina ezinezkoa izan da pandemiaren ondorioz ezarritako murrizketak direla eta.

Ekintza horiekin batera, langabetuei orientazioa emateko prozesuetan autoenpleguari lotutako moduluak sartu dira, modu egonkorrean. Hala, bai CEINek, bai NEZek ekintzailetza-prozesuen tutoretza-lanetan aritu dira, langabetuekin lan egiten duten beste entitate batzuekin batera. Zehazki, hauek dira artatu diren pertsonen kopuruak:

		2017	2018	2019	2020
CEIN	CEIN EKINTZAILEAK (ZERBITZUAK)	1.743	2.150	2.858	
	NAFARROAKO ENPLEGU ESKATZAILEAK		750	931	
BESTELAKO ENTITATEAK	EKINTZAILEAK (ZERBITZUAK)	1.117	1.257	1.117	
GUZTIRA		**2.860**	**4.157**	**4.906**	

Oraindik ez da lortu autonomoen erakundeek parte-hartze sendoagoa izatea ekintzaile izan nahi duten pertsonen prestakuntzan, sentsibilizazioan eta orientazioan lan egiten duten eremuetan.

Ondorioak, labur:

Plan honetan, kultura ekintzailearen sustapena kultura horren inguruko sentsibilizazioaren eta motibazioaren ikuspegitik eta prestakuntza egokiaren ikuspegitik bideratu da. Orokorrean esan genezake ekintzailetza gehiago dela jarrera bat gaitasun bat baino. Azken finean, hasteko borondatea eta bokazio ekintzailea behar dira, gero prestakuntza jarduerekin osatu ahal izateko.

- Nahi izan gabe egindako ekintzailetza-prozesuek biderkatu egiten dituzte porrota izateko arriskuak. Hori dela eta, sektorean ekimen asko desagertzen direla ikus dezakegu. Horri gehitu behar zaio <ekintzailetza> behartua eta instrumentala (elkarlaneko plataformena, adibidez), zeinak bizi-itxaropen urria baitu.

- Lotutako arriskuen ondorioz, funtsezkoa da aurretiazko orientazio-prozesuetan egoera horiek kontuan hartzea, pobretze dinamikak saihesteko.

- Orientazio egoki batek, aldiz, emanen du enpresa esperientzia indartsuak sortzeko aukera, hain zuzen ere, arrakastatsuak izateko nolabaiteko bermeak dituzten enpresak.

- Ekintzailetzarako orientazioa eta laguntza emateko jardueretan instantzia eta erakunde ugarik esku hartzen dutenez, zentzuzkoa litzateke haien artean koordinazio eta informazio egokia sustatzea.

- Lanbide Heziketako zentroetan ekintzailetza gelak martxan jartzeak gune interesgarri bat gaitzen du sektore honen hazkundea sustatzeko, LH nitxo garrantzitsua baita mikro ETEen hazkunderako.

2.4 Lan autonomoa finkatzea

Ildo honek hiru ekintza eta 16 jarduera ditu. Enpresa txikien biziraupenerako eta garapenerako funtsezkoak diren bi alderdi ditu ardatz: berankortasunari eta iruzurrari aurre egiteko borroka eta negozioak ixtea saihesteko eta negozioen erreleboa sustatzeko neurrien garapena.

Berankortasunari aurre egiteko borrokari dagokionez, hornitzaileei ordaintzeko jardunbide egokiak izateagatik, erakundeei, enpresei edo udalei emandako kalitate zigilua edo saria sustatzeko ildoan baino ez dira eman aurrerapausoak, Nafarroako Gobernuaren InnovaRSE zigiluaren bidez.

Nafarroa aitzindaria da arlo horretan, eta Lan Zerbitzuak InnovaRSE metodologia lan autonomora eta mikro ETEetara egokitzeko lan egin du, «Lan autonomoa eta EGE»

bertsioaren bidez. Lan autonomora bideratutako bertsioa metodologia arinagoa eta dinamikoagoa da, autonomoen errealitatera egokitzeko.

Oraingo egoerari dagokionez, % 71ek gizarte erantzukizuneko jardunbideak egiten ditu. % 60k etika enpresariala erabiltzen du, eta % 40ek ingurumena hobetzea du buruan. % 85ek jardunbide arduratsuak ditu bezeroekin, eta, datu estatistiko hauekin amaitzeko, % 86k EGE landuko luke Nafarroako Gobernuak sustatuko balu.

Sustainn aholkularitzak TARSE metodologia aurkeztu zuen, eta Agroevolution proiektua garatu zen. UAGN elkarteak sustatutako kongresu bat da, Nafarroako lurraldean baliokatea ia osorik, lehen sektoretik nekazaritzako elikagairen industriaraino, hartzen duen elikadura ekosistema baitago.

Iruzurrari aurre egiteko borrokan, iruzur fiskalaren aurkako kanpaina orokorrarekin bat egitea aukeratu da. Beste alde batetik, salaketa anonimorako postontzi bat sortu da (berankortasunaren postontziarekin batera, Foru Ogasunean), non iruzur fiskala eta lehia desleiala salatu baitaitezke. Hauek dira emaitzak:

Salaketen postontzia

IZAPIDETUTAKOAK	**2017**	**2018**	**2019**
Artxibatu direnak	296	129	60
Ikuskapen planaren analisia eta ebaluazioa	33	16	3
Beste atal batzuetara bideratu direnak	9	6	8
Beste erakunde batzuetara bidali direnak	2	5	4

Aztertzen	426	111	195
GUZTIRA	**766**	**267**	**270**

Aurrerapausoak eman dira negozioak ixtea saihesteko eta belaunaldien arteko erreleboa sustatzeko neurrien arloan. Horretarako, enpresan ondorengorik ez duten negozioen poltsa bat sortzeko jarduera batzuk jarri ziren abian. Poltsa hori kontsultatu dezakete ekiteko prest dauden langabetuek, eta bertan erregistra daitezke, erreleborik ez dutelako, ixtekotan diren negozioak eta lehenagotik martxan dagoen negozio bat hartu nahi duten ekintzaileak. Hala, interakzio bat ezar daiteke batzuen eta besteen artean.

Ildo horretan, negozioen erreleborako poltsa sortu da navarraemprende.com atarian. 2020aren amaieran, hauek zituen:

Erosleak: 23
Saltzaileak: 75
Pertsona interesdunak: 260
Guztira 7 eskualdaketa egin dira (2020/12/10)

Horrez gainera, belaunaldien arteko erreleboari buruzko azterlan bat egin da, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren eta Cederna Garalur elkartearen arteko hitzarmena dela bide.

Nafarroako Mendialdeko merkataritza sektorean hemendik hamar urtera izanen den belaunaldien arteko erreleboa aztertzen du, tresna-diagnostiko bat izateko, etorkizunean esku hartuko bada negozioen erreleboa errazteko lanetan.

Halaber, laguntza eta dirulaguntza berriak garatu dira negozio horiek ezartzen eta mantentzen laguntzeko.

- Laguntzen eta dirulaguntzen programa batzuetan dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptu berriak sartu dira. Haietako batzuk zerikusia dute pandemiak eragindako egoera bereziarekin (manparak, pantailak, pertsonak zenbatzeko sistemak, desinfektatzeko ekipoen eskuraketa, etab.). Beste batzuk, berriz, merkataritza elektronikoarekin lotuta daude (merkataritza elektronikoaren ezarpena, online saltzeko plataforma, aholkularitza gastuak, etab.)

- Ekintzailetza Planean jasotako neurri fiskaletarako sarbidea. Ekintzaileek % 20 murrizten ahalko dute zerga-oinarria PFEZean edo sozietateen gaineko zergan, lehenengo 5 urteetan emaitza positiboak dituztenean. Sektore jakin batzuetako enpresek edo Nafarroako Espezializazio Adimenduneko S3 Estrategian definitutakoek % 10eko kenkari gehigarria izanen dute aktibo finko berriengatik eta enplegua sortzeagatik. Orobat, enplegua sortzeagatiko kenkariari dagokion % 25eko muga kenduko da. Aktibo finko berriengatiko kenkarian, nahikoa izanen da gutxienez 6.000 euro inbertitzea. Kendu eginen da inbertsioa ibilgetu materialaren % 10etik gorakoa izan behar dela ezartzen duen eskakizuna.

- Merkataritza Plana: 28 laguntza lehiakortasuna hobetzeko deialdian, eta 5 deialdi berri, diagnostikoak, planak eta analisiak egiteko. Txikizkako Merkataritza Bultzatzeko Planak (2018-2020) jada jasotzen zuen helburu gisa sektorearen eraldaketa digitala, baina azkartu egin da oraingo osasun-krisiaren eta krisi ekonomikoaren ondorioz.

Hala ere, aurrez ikusitako jarduera batzuk ez dira egin edo atzeratu egin dira. Zalantzarik gabe pandemiaren eraginak eta hari lotutako era askotako zailtasunek erabat oztopatu dute planaren garapen harmonikoa eta koherentea, aurrez ikusi ez ziren baina ezinbestekoak ziren gaiak lehenetsi behar izan baitira COVID-19ak osasunean eta ekonomian izan dituen ondorioen inpaktu globala dela eta.

Ondorioak, labur:

Arrazoizkoa da pentsatzea planean jasotako neurriak oso interesgarriak direla autonomoen negozioak mantentzeko eta negozio horiek funtzionamendu ona izateko. Epe laburrean kobratzeko bermea eta lehia desleiala sortzen duen ezkutuko ekonomiaren aurkako borroka oinarrizkoak dira negozio txiki hauek (gehienak halakoak ira) bide onetik joan daitezen.

- Iruzurrari aurre egiteko neurriak sustatzea, iruzurrak egoera ahulean kokatzen baititu ekintzaileak ezkutuko ekonomiaren aurrean.
- Legez ezarritako betebeharrak betetzen dituzten eta gizarte erantzukizun gehiago hartzen dituzten enpresak laguntzea, diskriminazio positibo nabarmena aplikatuta konkurrentzia-prozesuetan. Helburua ez da soilik aitorpen soziala lortzea, lehiatzeko abantaila ere bihurtzea baizik.
- Beste alde batetik, gizarteko beste alderdi batzuk bidegabetzat jo ditzaketen neurri fiskalak alde batera utzita, gizarte osoarekin erantzunkidetasunez jokatuz, beren eguneroko kudeaketan hobekuntza nabarmenak sartzen dituzten eta aldaketa-prozesuak (hala nola digitalizazioa edo iraunkortasuna) ahalbidetzen dituzten negozioei laguntzeko lerroak sustatu behar dira. Halaber, egokia litzateke landa eremuetan ekintzailetza-prozesuak garatzeko laguntza ereduak lantzea, negozioak ezartzeko baldintzak gogorragoak baitira eremu horietan.

2.5 Emakume ekintzaile eta autonomoen gaineko ekintza plana

Ildo honek lotura zuzena du gero eta konplexuagoa den lanaren eta produktuen merkatuaren barruan emakumeen aukerak hobetzearekin.

Emakumearen posizionamendua lan merkatuan ezegonkorragoa da, argi eta garbi, eta gutxiagotasun egoera hori sistematikoki ematen da ekonomiaren beste eremu batzuetan.

Orain aztertzen ari garen kasuan, ekintza zehatz bat eta hiru jarduera ezarri dira emakume ekintzaileei eta autonomoei laguntza emateko.

Jarduera familia eta lana bateragarri egiteko laguntzetan zentratu da, agian gehiegi, eta lotuta egon da, amatasun bajan zehar, emakume autonomoaren ordezkapena ahalbidetzeko kontratazioarekin. Neurri hau martxan dago jada, eta orain analisi prozesu batean dago, NEZek egindako azterlan bat oinarritzat hartuta.

Orokorrean, NEZ ekintza zehatzak egiten ari da aukera berdintasun hori indartzeko zenbait ekintzaren bidez: ekintzailetzarako neurri guztiak genero ikuspegia aintzat hartuta diseinatzen dira, NL-NEZen bidez garatzen diren enplegurako gainerako politika aktibo guztiak bezala. Hau da, kontuan hartzen dira emakumeak lan merkatura sartzeko dituen zailtasunak, laneko eta familiako bizitza bateragarri egiteko arazoak, soldata-arrakala, etab.

Zehazki, ekintzailetzaren arloan:

- Autonomoak ezartzeko ematen diren dirulaguntzen zenbatekoak handiagoak dira ekintzaileak emakumeak badira (% 25 gehiago).

- Langile autonomoen laneko eta familiako bizitza bateragarri egiteko, pertsona bat kontratatzeko dirulaguntzen deialdia sortu da.

- Ekintzailetzaren arloko aholkularitza eta laguntza genero ikuspegia kontuan hartuta egiten da.

- Emakumeen ekintzailetzaren arloko proiektu zehatz batzuk sustatzen dira.

Ondorioak, labur:

Emakumeek lan autonomoaren eremuan bizi duten egoerak gainerako jarduera sozialetan dituen arazo berberak ditu. Genero arrakala sakon errotuta dago oraindik ere kontzientzia kolektiboan. Pandemian zehar, berriro ikusi dugu nola izan diren emakumeak lanpostuak uzten lehenak senideak zaindu ahal izateko.

Logikoki, inguruabar horrek areagotu egiten ditu zailtasunak negozioak kudeatzen dituzten eta, beraz, ordutegian malgutasun handiagoa behar duten emakumeen kasuan.

Amatasun baja hartzen denean emandako laguntza garrantzitsua bada ere, gaur gaurkoz, <zaintzaile> izaera bizitza osoan zehar atxikita darama emakumeak, inolako zalantzarik gabe. Hori dela eta, gizarteak generoen arteko erantzunkidetasunaren garrantzia lantzen jarraitu behar du.

Baina, gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasunaren alde egiten diren esfortzuetatik harago, eremu batzuetan ahalegin berezia egin behar da emakumeek gizonen aukera berberak izan ditzaten:

- Kalitateko eta sarbide unibertsaleko hurbileko zerbitzuak funtsezkoak dira emakumeen bizi-kalitaterako, bereziki, lan merkatuan sartuta dauden emakumeen kasuan.

- Langabeziaren eta ekintzailetzaren arteko trantsizio egokiaren alde lan egitea da bide zuzena, enplegua eta sarrerak sortzen dituen heinean.

